

# EUSKARALDIA

ENTITATEENTZAKO AURKEZPEN TXOSTENA





## AURKIBIDEA

---

Entitateentzako aurkezpen txostena.....	3
Aurrekariak .....	3
Ezaugarri orokorrak .....	4
Herritarren eta entitateen urratsen sustatzailea.....	4
Bidea egin behar duen ariketa soziala.....	4
Osagarria.....	4
Euskaraldiaren bigarren edizioa .....	5
Definizioa .....	5
Helburuak .....	5
Ezaugarriak.....	6
Parte hartzaileak.....	6
Herritarrak.....	6
Entitateak.....	6
Entitateek egin beharreko prozesua .....	8
Kronograma.....	13
Euskara entitatean txertatzeko argudioak .....	14
Entitatearen kanpo-ikuspegia.....	14
Barruko ikuspegia .....	15



## ENTITATEENTZAKO AURKEZPEN TXOSTENA

---

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

2018an egin zen Euskaraldia: *11 egun euskaraz* lehen edizioan norbanakoengan jarri zen fokua eta milaka izan ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin ahobizi eta belarriprest moduan ariketan parte hartu zutenak.

Bigarren edizio honetan entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egingo zaie, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsak ematen has daitezten, eta entitateko kideen parte-hartzea sustatu eta babestu dezaten.

Dokumentu honen helburua entitateek Euskaraldiko bigarren edizioan eman beharreko pausoak zehaztea da, ekimenaren eta hartu beharreko konpromisoaren berri izan dezaten.

## AURREKARIAK

---

2018an egin zen Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimenak hainbat ondorio positibo utzi zituen:

- Parte-hartzea. Zilegitasun soziala izan du Euskaraldiak, 400 udalerrri, 200 sustatzaile orokor eta 225.000 ahobizi eta belarripresten parte-hartzearekin.
- Elkarlana eta hedapena. Muga geografiko eta administratiboak gainditu ditu Euskaraldiak eta Euskal Herri osoan egin da, alde guztietako eragileek eta instituzioek hartu dute parte. Lankidetzaz bide berriak zabaldu dira euskalgintzako gizarte eragileen, instituzio publikoen eta bestelako entitateen artean.
- Arau soziala. Hiru aurreiritzi gainditu (gainditzeko hasi) eta hiru arau berri gizarteratu (gizarteratzeko hasi) ditu Euskaraldiak:
  - Lehen hitza euskaraz egitea.
  - Elkarriketa elebidunak izatea.
  - Ezagutza txikiko eremuetan euskaraz egitea.



## EZAUGARRI OROKORRAK

---

### HERRITARREN ETA ENTITATEEN URRATSEN SUSTATZAILEA

Euskaraldiak herritarren zein entitateen urratsak sustatzen ditu. Ariketa praktikoa da, herritarrak hizkuntza-ohiturak aldatu edota indartzeko urrats praktikokoak ematera bultzatzen ditu eta. Euskararen erabilera du oinarri, ez soilik ezagutza (nahiz eta ariketa egiteko gutxieneko ezagutza beharrezkoa den).

Euskaraz aritu nahi duten **herritarrek entitateen babesa eta eguneroko oztoporik eza behar dituzte**. Aldi berean, herritarrek trakzio gaitasun handia dute mota guztietako entitateetako hizkuntza-arauak aldarazteko. Bi urratsak dira beharrezkoak hizkuntzaren egoera normalizatu batera iristeko.

### BIDEA EGIN BEHAR DUEN ARIKETA SOZIALA

Euskaraldia ariketa da, baina ez da ariketak irauten duen egunetan soilik gauzatzen, aurreko eta ondorengo prozesu osoa hartu behar da kontuan. Ariketaren helburua da herritarrek hizkuntza-ohiturak aldatzeko urrats esanguratsuak eman eta horretarako tresna egokiak eskura izatea. Beraz, ariketa eraginkortasunez egin ahal izateko, beharrezkoa da alde aurretik lan batzuk egin eta herritarrak batzen diren eremuak prestatzea (besteak beste, herri batzordeak osatu eta indartzea; herritarrak prestatzea, pedagogia lana eginda; eta prozesuak bideratzea entitateek neurri egokiak har ditzaten).

### OSAGARRIA

Euskaraldia bi urteko zikloetan gauzatzen den ekimena da. Parte hartzen duten herritar eta entitateek, ariketak irauten duen bitartean, hizkuntza-ohiturak aldatzeko borondatea adierazten dute, baina tarte horretara mugatzen da konpromisoa. Edonola ere, hizkuntza-ohiturak aldatzeko urratsak ematea da ariketa egiten dutenen helburua, beraz, koherentea litzateke emandako pausoak mantentzen saiatzea.

Entitateei dagokienez, baina, euskaraz aritzeko baldintza egokiak bermatzeak eta urrats esanguratsuak emateak denbora luzeko prozesua eska dezake. Euskaraldia euskara planekin osagarria da alde horretatik: euskara planak dituzten entitateetan bultzada emateko baliagarria da, eta planik ez duten entitateetan gerora euskara marko estrategikoan sartzeko abiapuntu interesgarria izan daiteke ariketa soziala.



## EUSKARALDIAREN BIGARREN EDIZIOA

---

### DEFINIZIOA

Euskaraldiaren bigarren edizioa, 2019-2020 urteen artean gauzatuko dena, herritarren eta entitateen ahozko hizkuntza praktika berriak sustatzeko ariketa soziala da, eta belarriprest eta ahobizi dinamikan oinarritzen da.

### HELBURUAK

1. Lehen edizioan herritarrek modu kolektiboan hizkuntza-ohiturak aldatzeko irekitako bideari jarraipena eta bultzada ematea.
2. Mota guztietako entitateek euskaraz aritzea ahalbidetu eta babesteko erabaki berriak hartu eta urrats esanguratsuak ematea.
3. Euskaraldiaren baitan sortu diren euskaltzale antolatuen batzorde eta lankidetzak harremanak indartu eta egonkortzea.
4. Ahobizi eta belarriprest praktikak errotu eta euskarari buruzko arau sozial berriak gizartean txertatzen jarraitzea.

### EZAUGARRIAK

1. Ahobizi eta belarriprest dinamika: ahobizi eta belarriprest dinamika da Euskaraldia ariketaren oinarri nagusia. Herritarrek rol bat ala bestea aukeratu beharko dute.
2. Lurraldea: ekimena Euskal Herri osoan gauzatuko da, nahi duten herri eta entitateetan.
3. Entitateak eta herritarrak batera: bigarren edizioan, herritarrak eta mota guztietako entitateak izango dira parte-hartzaile. Azkenean, norbanakoen artean ez ezik taldeetan ere burutzeko ariketa.
4. Oinarri bateratua eta moldagarritasuna: oinarri orokorra du ekimenak, baina ezaugarri batzuk egoeretara moldagarriak dira. Bi parte-hartze mota ditu -norbanakoak eta taldeak-, eta lanerako lehenetsua non jarri batzorde eta entitateek erabakiko dute. Horrez gain, progresibitateko aukera ematen du.
5. Bi urteko zikloa: bigarren edizioa 2019 eta 2020 urteen artean gauzatuko dugu. Ariketa soziala 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean izango da. Ariketara behar bezala heltzeko 2019an bertan hasi gara lanean. Euskaraldia ariketa da, eta herritarrek hizkuntza-ohiturak aldatzeko prestaketarako denbora behar da.



## PARTE-HARTZAILEAK

---

Ariketa sozialean bi parte-hartzaile mota egongo dira:

### HERRITARRAK

Gutxienez euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako norbanakoak. Ahobizi eta belarriprest gisa hartuko dute parte eta rola ariketan zehar izango duten jarreraren arabera aukeratuko dute, ez soilik ezagutzaren arabera. Lehen edizioaren antza izango du ariketak parte hartzaile mota honi dagokionez, baina herritar askok beren entitateetako kide gisa ere gauzatuko dute ariketa.



- Ahobizi: Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo du uneoro. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakienean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko du. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da.



- Belarriprest: Ulertzen duten guztiekin uneoro euskaraz hitz egingo ez dutenak *belarriprest* dira. Gutxienekoa euskara ulertzea da. Hala ere, nahi eta ahal beste egin dezake euskaraz; baina besteek euskaraz egin diezaioten eskatuko du. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.

### ENTITATEAK

Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar), ariguneren bat badute. Ariguneek, edo *euskaraz aritzeko guneek*, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan. Hala, bi motako ariguneak bereizten ditugu:

- Barne-ariguneak. Entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Entitate motaren arabera, ohiko funtzionamendua duten talde horiek askotarikoak izan daitezke (sailak, atalak, ekipoak, sekzioak, zerbitzuak, taldeak...). Talde honetako kideek barne-arigunea osatzea erabakitzen dutenean modu kolektibo batean euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrera pausoak ematea adostuko dute. Arigunea osatzeko beharrezkoa izango



da taldeko kideen %80a gutxienez ados egotea. Ariguneetako kide bakoitzak erabakiko du ahobizi edo belarriprest moduan parte hartzea.

- Kanpo-ariguneak. Entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonak osatzen dute kanpo-arigunea, uneoro belarriprest edo ahobizi bat egongo dela bermatzen bada; hau da, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea badute. Horrelako espazioak izango dira jendaurreko edo harrera postuak, supermerkatuetako kutxak, telefono bidezko arreten arduradunak, tabernariak edo dendariak, besteak beste.

Helburu nagusia entitate horien harremanetan euskararen erabilera handitzea da. Parte hartzeko, zuzendaritzaren eta entitateko gainontzeko kideen inplikazioa beharko dira.

*Arigune posibleak identifikatzeko tresna* jarriko da entitateen eskura, ariketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituen aztertzeko. Gutxiengo euskara ulermena duten taldeak identifikatzen lagunduko dio tresna horrek entitateari. Behin azterketa hori eginda, baldintzak betetzen dituzten taldeetako kideekin ariguneak osatzea adostu beharko dute arduradunek.

Baldintzak betetzen ez dituzten entitateak: arigunerik ez duten entitateei, hau da, euskara ulertzen duen pertsona talderik edota herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko kiderik ez dutenei, prozesuan sartzeko aukera emango zaie, nahiz eta ezingo duten ariketan parte hartu. Bi esparrutan lan egitea proposatuko zaie:

- Datozen edizioetara begira aurrera-pausoak ematen hasteko urratsak ematen hastea. Horretarako, neurri proposamenak egingo zaizkie.
- Entitate barruan ahobizi edo belarriprest gisa Euskaraldian parte hartuko duten kideen ariketa babestu eta sustatzea.



## ENTITATEEK EGIN BEHARREKO PROZESUA

Euskaraldian parte hartu nahi duten entitateek ondorengo prozesua jarraitu beharko dute:

1	Euskaraldiaren proposamena aztertu eta zuzendaritzak prozesuan sartzeko erabakia hartu.	2019 ekaina – 2020 uztaila
2	Arigune izan daitezkeen taldeak identifikatu	2019 urria – 2020 uztaila
3	Ariketa egitea adostu arduradunek ariguneetako kideekin.	2019 urria – 2020 uztaila
4	Entitateak ariketan izena eman.	2019 azaroa – 2020 uztaila
5	Hizkuntza-ohituren aldaketa eta ariketa gauzatzea posible izan daitezen neurriak hartu.	2019 azaroa – 2020 abendua
6	Ariketa egin.	2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra
7	Ariketaren balorazioa egin, aurrera begira jarrita.	2020 abendutik aurrera

\*\* kontuan izan zenbait entitatek urrats bakoitza emateko epe luzea behar izango dutela. Beraz, entitate bakoitzak aztertu beharko du zenbateko aurrerapenarekin hasi behar duen lanean.

### 1. EUSKARALDIAREN PROPOSAMENA AZTERTU ETA

#### ZUZENDARITZAN PROZESUAN SARTZEKO ERABAKIA HARTU.

Behin ekimenaren berri izanda, zuzendaritza edo arduradunen lana izango da Euskaraldiak egiten duen proposamena aztertzea. Ekimenean parte hartu ala ez erabakitzerako orduan, zenbait baldintza hartu beharko dituzte kontuan: entitatean ariketa egiteko baliabideak eta arduraduna(k) jarri beharra, eman beharreko urratsak, autonomiaz aritu beharra, ekimenaren denboretara egokitu beharra eta, batez ere, entitatean hizkuntza-ohitura berriak finkatzeko prestutasuna izatea.





## 2. ARIGUNE IZAN DAITEZKEEN TALDEAK IDENTIFIKATU.

Entitateko zuzendaritzak proposamena onartu eta aurrera egitea erabakitzen badu, hau da, entitateko hizkuntza praktikak aldatzeko prest badago, lehenengo zeregina arigunerik duen aztertzea izango da.

*Ba al dago kide guztiek euskara ulertzen duten talderik gure entitatean? Herritarrekin harremanetan dauden kideekin bermatu al dezaket euskarazko arreta uneoro?*

Kanpo zein barne ariguneetan gutxieneko baldintza da bertako kideek euskara ulertzea; hortaz, entitateko egituran dauden taldeak (barnekoak eta kanpo-harremanetakoak) zehaztu eta bertan dauden kideek euskara badakiten ikusi beharko du arduradunak, entitatean arigune posiblerik ba ote dagoen identifikatzeko. Lan hau errazteko, arigune posibleak identifikatzeko tresna erabili ahalko dute entitateetako arduradunek<sup>1</sup>. Azterketa horren bidez entitate barruan euskara ulertzeko gai diren kideak identifikatu eta entitate barruan non kokatzen diren ikusiko du arduradunak. Horrela, entitatearen egungo errealitatea jasoko du, eta taldean hizkuntza-ohiturak aldatzeko aukera errealak ezagutuko ditu. Horrekin batera, Euskaraldiko ariketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituen (edo ariketa heltzen denerako beteko dituen) jakingo du zuzendaritzak.

## 3. ARIKETA EGITEA ADOSTUKO DUTE ARDURADUNEK GAINONTZEKO KIDEEKIN.

Behin balizko ariguneak identifikatuta, ariketa sozialean parte hartzea adostu beharko dute zuzendaritzak eta ariguneetako kideek. Talde horiei luzatuko zaie proposamena, ez entitateko kide guztiei.

### a. Barne-ariguneak

Kideek proposamena egoki ikusten badute, hau da, Euskaraldiak proposatutako ariketa modu kolektiboan egiteko prest badaude, ariketan arigune moduan parte hartzea adostuko dute.

*Prest al gaude 15 egunez Euskaraldian ahobizi eta belarriprest moduan parte hartu eta taldean gure hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan aldatzeko?*

Adostasuna lortzeko, erabaki kualifikatua proposatzen da; hots, eremuko kide guztien %80k, gutxienez, baietz esan beharko luke Euskaraldian arigune gisa,

---

<sup>1</sup> Arigune posibleak identifikatzeko tresna eskuragarri dago [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean.



modu kolektiboan, parte hartzeko. Horietako batzuek ahobizi izatea erabakiko dute gero; eta besteek, belarriprest.

#### b. Kanpo-ariguneak

Arduradunek hitz egingo dute entitatearen eta herritarren arteko harremanak gauzatzeko espazioetan aritzen diren eta euskara ulertzen duten kideekin. Kanpo-arigunea sortzea adostea izango da helburua, hau da, herritarrei uneoro entitateko kide batekin euskaraz mintzatu ahal izatea bermatzea. Horretarako, espazio horretako kideek ahobizi edo belarriprest modura parte hartzeko adostasuna eman beharko dute.

*Euskaraldiak iraungo duen bitartean bermatu al dezakegu gutxienez ahobizi edo belarriprest bat prest egongo dela uneoro herritarrei erantzuteko?*

Kontuan hartzekoak:

1. Arigunea osatzen duten kideen erabaki pertsonala izango da ariketan parte hartzea.
2. Pertsona bakoitzak erabakiko du arigunearen barruan ahobizi edo belarriprest izango den. Aukeraketa egitean kontuan izan beharko du rol bakarra izango duela Euskaraldiak irauten duen bitartean, entitate barruan zein kanpoan.
3. Adostasuna ahalik eta modu esplizituenean jasotzen saiatu. Ariguneetan ariketa taldean egingo den arren, erabaki pertsonala izango da ariketan parte hartzea. Guztien iritzia jaso dela egiaztatu behar da, beraz.

#### 4. ARIKETAN IZENA EMANGO DU ENTITATEAK.

Euskaraldian parte-hartzaile izateko, bi baldintzetako bat bete beharko du gutxienez entitateak:

- Barne funtzionamenduan arigune bat osatzea.
- Kanpo harremanetan arigune bat osatzea.

Entitateak baldintzak betetzen baditu, eta kideen zein arduradunen arteko adostasuna badago, entitateak parte-hartzaile gisa izena emango du Euskaraldian.

Ariguneko kideak ahobizi edo belarriprest izango dira. Erabakia pertsonala izango da, baina taldean hitz egingo dute hautuari buruz, ariketa bera ere taldean egingo baitute.

Halaber, rol bera aukeratu beharko du entitate bateko langileak entitate barruan zein kanpoan herritar gisa (hortaz, entitatean ahobizi dena herritar gisa



ere ahobizi izango da; eta belarriprest dena hala izango da entitate barruan zein kanpoan).

Entitate batean ere, bi modutako parte hartzaileak egongo dira:

- a) **Ariguneetan dauden langileak.** Ariketa taldean egingo dute eta elkarrekin adostuko dute, aldez aurretik, hizkuntza-ohiturak aldatzea.
- b) **Ariguneetan ez dauden langileak.** Azken hauek modu pertsonalean eta herritar gisa hartuko dute parte.

Baldintzak betetzen ez dituzten entitateek (euskaraz ulertzen duen talde osorik ez dagoelako edo kideen adostasunik ez dagoelako) ezingo dute ariketan parte hartu. Hala ere, entitateko hizkuntza-ohiturak aldatzeko urratsak eman nahi dituztela, eta entitateko kideei norbanako gisa ariketa egiteko babesa ematen dietela adierazi ahalko dute izena emateko orduan.

Izena emateko Euskaraldiko webgunean ([www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)) egongo den galdetegia bete beharko da. Bertan entitatearen datuak eta ariketan parte hartuko duen arigune kopurua zehaztu beharko dituzte.

## 5. NEURRIAK HARTU HIZKUNTZA-OHITUREN ALDAKETA ETA ARIKETA GAUZATZEA POSIBLE IZAN DAITEZEN.

Behin izena emanda, 2020ko udazkenean gauzatuko den ariketa posible izan dadin neurriak hartuko ditu entitateak, ariguneak izan zein ez izan. Horretarako, zenbait tresna izango ditu eskuragarri intranet atarian.

Alde batetik, ariketa behar bezala gauzatzeko neurriak hartu beharko ditu entitateak:

- Euskaraldian parte hartuko duela eta ekimena zertan datzan jakinaraztea entitateko kide guztiei, parte nola har dezaketen azalduta.
- Parte hartuko duten kideei ariketara begira prestatzeko tresnak eskura jartzea. Prestakuntza hori hainbat bideetatik egin ahal izango da: aurrez-aurreko tailerrak, gogoeta saioak, bideo pilulak, eskuorriak eta abar. Entitateak erabakiko du modua.
- Ariguneak identifikatzea (modua aurrerago zehaztuko da).

Bestalde, entitateko hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskarazko praktikak bultzatzeko, bestelako hainbat neurri osagarri har ditzake entitateak. Aukerazkoak dira, entitate bakoitzaren beharren, lehentasunen eta aukeren arabera gauzatzekoak. Honako hauek dira neurri horien helburuak:



- ARIGUNEAK SORTU. Balizko arigune izan daitezkeen taldeak (barrukoak zein kanpokoak) sortzea.
- ARIGUNEAK AKTIBATU. Arigune izateko jadanik baldintzak dituzten taldeak (barrukoak zein kanpokoak) aktibatzea edo parte hartzera gonbidatzea.
- ARIGUNEAK BABESTU. Ariguneak (barrukoak zein kanpokoak) babestea.

Neurriak hartzeko baliabideak intranet atarian jarriko dira entitateen eskura.

## 6. ARIKETA SOZIALA EGINGO DUTE ENTITATEKO KIDEEK.

Herritar norbanakoen eta entitateen parte hartzea duen ekimena izanda, bigarren edizioan hiru erataria gerta liteke ariketa entitate parte hartzaile batean.

- Batetik, barne-ariguneetan.
- Bestetik, kanpo-ariguneetan.
- Gainera, ariguneetatik kanpoko zenbait kide, norbanako gisa, ahobizi eta belarriprest gisa ariketa egiten egotea gerta daiteke.

Beraz, hamabost egunetan, izena eman duten kideek, ahobizi eta belarriprest gisa, elkarrekin hizkuntza-ohiturak aldatzeko praktika kontzientea egingo dute. Ahobiziek euskaraz egingo dute euskara ulertzen duten kide guztiekin. Belarriprestek euskaraz egingo dute nahi eta ahal duten guztietan eta beraiekin euskaraz egiteko eskatuko diete euskara dakitenei.

Entitatean izendatutako ariguneetan (kide guztiek euskara ulertzen dutenetan), kideen artean hartu duten erabakia praktikara eramango dute hamabost egunetan. Euskara izango da lehentasunezko hizkuntza. Elkarrizketa elebidunak gertatuko dira askotan eta euskaraz egin nahi dutenek babesia eta erosotasuna sentituko dituzte.


## 7. ARIKETAREN BALORAZIOA EGINGO DA ENTITATEAN, AURRERA BEGIRA JARRITA.

Ariketa sozialaren eta ekimenaren prozesu osoaren balorazioa egingo da entitatean. Balorazioa egiteko gida proposamena jarriko da entitateen eskura.

Azkenik, ekimeneko prozesuan hartutako neurriak mantendu daitezkeen aztertuko du zuzendaritzak, hizkuntza-praktika berriak aurrerantzean ere posible izan daitezkeen.

# KRONOGRAMA

\*Bi urteetako lan jarraia





## EUSKARA ENTITATEAN TXERTATZEKO ARGUDIOAK

---

### ENTITATEAREN KANPO-IKUSPEGIA

1. Lege-markoa. Araudia betetzeak bezeroen/bazkideen/erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak betetzea ekarriko luke eta haien gogobetetzea.
2. Balio erantsia eta produktu eta zerbitzuen salmenta. Euskara entitatearen kudeaketan txertatzeak merkatu-aukerak handi ditzake. Produktuei eta zerbitzuei balio erantsia eman diezaike, eta entitatearekiko identifikazioa eta atxikimendua sendotu dezake.
3. Gizarte-erantzukizuna. Entitateak euskarara hurbiltzea ez da, soilik, beraiek egiten duten hautu bat edo eskubide bat. Entitateek bertako komunitatearen ekosistema osoaren (tartean hizkuntza) garapen jasangarri eta harmonikoa bermatzeko duten erantzukizun eta ardura sozialaren parte ere bada.
4. Ingurunean erroturiko entitatea. Euskarak herritar, erabiltzaile edota bezeroekiko hurbiltasuna eta identifikazioa eskaintzen ditu.
5. Euskara irudi edo markaren elementu. Entitatearen irudia hobetzeko bide izan daiteke.
6. Zerbitzuaren kalitatea. Bazkidea, erabiltzailea edo eroslea eroso sentitzen den hizkuntzan aritzeko aukera ematea kalitatezko zerbitzua eskaintzea da.
7. Aldaketetara egokitzeko gaitasuna. Berrikuntza. Bazkideek, herritarrek, langileek... euskararen erabileraren inguruan duten kezkarri erantzuteko modu bat da euskara erabiltzeko aukerak handitzeko estrategiak abian jartzea.



## BARRUKO IKUSPEGIA

1. Kideen gogobetetzea. Euskaraz dakiten herritarrei euskaraz aritzeko aukera eskainita, haien gogobetetzea, motibazioa eta entitatearekiko atxikimendua areagotuko dira; eta ondorioz, entitatearen barne- eta kanpo-kalitatea ere handituko dira.
2. Entitatearen barne-kohesioa. Entitateko hiztunen aniztasunetik abiatuta, euskal hiztunei bere nortasuna garatzen lagunduko dio eta nortasun horretan eroso sentitzen, babestua eta taldean; euskara ulertzen duenak aukera izango du modu mailakatuan euskara erabiltzen hasteko; eta erdal hiztunari aukera eman beharko litzaioke euskararen mundua gertuagotik ezagutzeko eta horrekin aberasteko.
3. Euskara ikasteko egindako ahaleginari etekina ateratzea. Euskal gizarteak hizkuntza-gaitasuna handitzeko egindako ahaleginari etekina atera behar liokete entitateek, hezkuntza-eremutik at euskara erabiltzeko bideak erraztu eta euskaraz hitz egin nahi duen horiei ateak zabalduta.
4. Euskara erabili nahi dutenei aukera ematea eta euskara ulertzen dutenek, aldi berean, beren euskara-maila hobetzea.
5. Euskaraz hitz egiteko zailtasuna dutenei abagunea eskaintzea euskara-maila hobetzeko. Euskara-maila hobetuta, aukera asko zabal daitezke, bai lan-merkatuan, bai lagunartean, bai familian, baita gizarte-mailan ere.